

Gizarte Kontseilua

2 0 1 4 - 2 0 1 7

2014 → 2015 → 2016 → 2017 →

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Gizarte Kontseilua

2 0 1 4 - 2 0 1 7

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

2014

2015

2016

2017

UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren Idazkaritza Nagusia

Lege Gordailua: VI-380/2018

Diseinua eta maketazioa: EPS Comunicación

Inprimaketa: EPS Impresión

Ale kopurua: 1.000

A u r k i b i d e a >

Aurkezpena	6
-------------------	----------

UPV/EHU-ren Gizarte-Kontseilua	8
---------------------------------------	----------

Lege-esparrua	9
---------------	---

Gobernu-egitura	10
-----------------	----

Eginkizunak eta eskumenak	11
---------------------------	----

Osaketa	12
---------	----

Gizarte Kontseiluko kideak 2014ko urtarriletik 2017ko abendura	14
--	----

Plan Estrategikoa	16
-------------------	----



2014-2017 osoko bilkuran jorratutako gaiak	20
---	-----------

Jarduera nagusiak	28
--------------------------	-----------


Plan Estrategikoaren esparruan egindako txosten eta azterketak	30
--	----

UPV/EHU-ren ikuspena	30
----------------------	----

Unibertsitate-enplegua	32
------------------------	----

Topalekua. Informazio-buletina	33
--------------------------------	----

www.gizartekontseilua.eus	40
---------------------------	----



A u r k e z p e n a





Ohore handiz aurkezten dut 2014-2017 aldiko lau urteko Memoria, EHUren Gizarte Kontseiluaren XXX. urteurrena ospatzear gauden honetan. Presidente-karguan darमतzadan hiru urteotan, egoera ekonomiko oraindik ere konplexuak eta egoera instituzional korapilatsuak astindutako garaio-tan, ikusi dugu Gizarte Kontseiluan katalizatu ditugula Unibertsitateak ordezkatzan duen gizartearen ekarpen garrantzitsuak, gure aukeren barruan.

Krisiaren ondorioz urritutako finantzaketa-testuinguru batean, Euskal Autonomia Erkidegoak modu nabarmenean jarraitzen du unibertsitate publikoa finantzatzen.

Jarduera ekonomikoak nolabaiteko hobekuntza ageri badu ere gure egunotan, datozen urteetan austeritate-esparru orokortuak jarraituko duela espero da, apur bat lasaituta baldin bada ere; horrek jardueragaitasuna murriztuko du eta lehentasun argiak ezartzea eskatuko, baita onartzen diren ekimenetan efizientzia bilatzera ere.

Ondorioz, faktore erabakigarria izango dira murrizpen ekonomikoak eta eskura ditugun baliabideen urritasunak, bete-betean sartuta gauden eta niri gidatzea egokitu zaidan 2017-2020 aldirako Plan Estrategikoaren irismena finkatzeko garaian. Hori dela eta, gure arreta EHUren helburuen aurrerabidean ardaztu beharko dugu, baita Gizarte Kontseilu honen balio-ekarpena handiena den esparruetan ere.

Bizi dugun uneotan, egoki deritzot lankidetzaren eta konfiantza-giroa sortzeari, epe ertainean erronka handinahitsuagoei heldu ahal izateko.

Datorren Unibertsitate Planari begira –hura da Gobernuaren erreminta nagusia, euskal unibertsitate-sistema antolatzeke–, Gizarte Kontseiluak konpromiso argiak dauzka hartu beharra unibertsitatearekin lankidetzan. Unibertsitate Plana etapa berri bati ekiteko aukera bikaina da, unibertsitatean gizartearen beharrianen bozeramaile-lanak egiteko. Eta, beharrian horiek asetzeko, ezinbestekoa da unibertsitatea, enpresa eta bestelako eragile sozialak eta ekonomikoak gerturatzeko jarraitzea, guztia ere ikasle graduatuak lanbidean hobeto txertatzeko; ezinbestekoa da, halaber, are protagonismo handiagoa ematea goi-mailako irakaskuntzari, Euskadiren eta lurralde bakoitzaren lehiakortasuna eta posizionamendua hobetzeko.

Lehiakortasun handiko testuinguru global batean, Euskal Herriko Unibertsitateak mundu zabaleko goi-mailako 500 irakaskuntza-erakunde onenen artean jarraitzen du, Shangaiko ranking sonatuaren arabera; munduko 150 unibertsitate gazten onenen artean, eta Espainiako 10 onenen artean, CWUR rankingaren arabera. Nolanahi ere den, emaitza horien ondoren ezin ditugu albo batera utzi gure helburuak: finantzazioa, ekoizpen zientifikoa, prestakuntza duala, nazioartekotzea, hizkuntza-normalizazioa eta gizartearen beharrianetara egokitzea. Hori horrela izanik, aldian-aldian prestatzen dugun adierazleen txostenak erakusten du etengabe eta modu jarraituan goazela aurrera gure helburu sozialak betetzeko bidean.

Azkeneko urteetan, gero eta garrantzi handiagoa hartu du unibertsitateen gaitasunak eta kontuak emateko kulturak. Alde horretatik, EHU unibertsitate publiko gardenen rankingean sartu da; hala jakinarazi du 2016ko Gardentasun Azterlanak, aurreko azaroan argitaratu zutenak.

Krisiarekin sortutako zailtasunak gorabehera, azkeneko lau urteotan nabarmen egingo dugu gure lanean aurrera, ikuspegi estrategikoz egin ere. Konbentzitura nago ederki konponduko ditugula, guztion artean, aipatu ditudan erronka horiek guztiak eta etorkizunean agertuko zaizkigunak, bereziki, Gizarte Kontseiluko kide guzti-guztiek ageri duten ahaleginari, dedikazioari eta lankidetzaren espirituari esker.

Joseba Agustín Eizaguirre Agote
EHUko Gizarte Kontseiluaren presidentea

U P V / E H U r e n
G i z

a r t e K o n t s e i l u a

Lege esparrua

Euskal gizarteak unibertsitatean parte har dezan bermatzeko gobernu organoa da Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseilua. Gizarte Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Unibertsitateko Erkidegoaren gizarte interesen alde egiten du bere kideen bitartez.

Honako hauek osatzen dute Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluaren lege eremua: Unibertsitateei buruzko Lege Organikoak, Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuek eta Gizarte Kontseiluaren beraren Araudiak.

Gobernu-egitura

Unibertsitate gobernu-organoak

	Kide anitzekoak	Kide bakarrekoak
UPV/EHU	Gizarte Kontseilua Unibertsitate Klaustroa Gobernu Kontseilua	Errektorea Errektoreordeak Idazkari nagusia Gerentea Gerenteordeak
CAMPUSA	Campuseko Batza	Campuseko errektoreordea
ZENTROAK	Fakultate/Eskolako Batza	Dekanoa/zuzendaria Dekanordeak/zuzendariordeak Idazkaria
DEPARTAMENTUAK	Departamentuko Kontseilua	Zuzendaria
UNIBERTSITATE INSTITUTUAK	Unibertsitate Institutuko Kontseilua	Zuzendaria

Eginkizunak eta eskumenak

Euskal Unibertsitate Sistemak, Unibertsitateei buruzko Lege Organikoak, Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuek eta Gizarte Kontseiluaren beraren Araudiak ezarri dituzte Gizarte Kontseiluaren eskumenak.

Harremanak gizartearekin

- | Unibertsitatearen eta haren eremu kultural, profesional, ekonomiko eta sozialaren arteko harremanak sustatzea, betiere unibertsitatearen jardueraren kalitatearen zerbitzura.
- | Unibertsitatearen eta bestelako erakunde publiko edo pribatuen arteko lankidetzak bultzatzea, ikasleen trebakuntza osatzeko eta lan merkatuan sartzeko bidea errazteko.
- | Ikasleak unibertsitatean egoteari buruzko arauak onestea.

Eskumen ekonomiko eta finantzarioak

- | Unibertsitatearen eta haren mendeko erakundearen aurrekontua eta urteko kontuak onestea Unibertsitatearen jardura ekonomikoak eta haren zerbitzuen errendimendua gainbegiratzea Gizartearen laguntza sustatzea unibertsitatea finantzatzeko eta unibertsitatearen jarduerak babesteko.
- | Ohiko gastuak kapital gastuetara transferitzeko eta kapital gastuak beste edozein izenburutara transferitzeko erabakia hartzea.
- | Unibertsitateko irakasleei banako ordainsari kontzeptu espezifikoaren hezkuntza eta ikerketako eskakizunetarako edo merezimendu aipagarrietarako.
- | Titulu ofizialik ez duten ikasketetarako prezio publikoak finkatzea.

Zentroak eta ikasketak sortzea

- | Fakultateak, Goi Mailako Eskola Teknikoak, Unibertsitate Eskolak eta Unibertsitate Institutuak sortzeko eta kentzeko proposamena egitea.
- | Ikerketako edo sorkuntza artistikoko institutu edo zentro publikoak edo pribatuak unibertsitateari unibertsitate-institutu gisa atxikitzeko hitzarmenak proposatzea.
- | Unibertsitate-ikasketak ezartzeko, aldatzeko edo kentzeko proposamena egitea.

Osaketa

UPV/EHU-ren Gizarte Kontseilua

OSOKO BILKURA

GIZARTE-INTERESAK

8

Eusko Legebiltzarrak izendatuta

3

lurralde historiko bakoitzeko
Batzar Nagusietatik izendatuak

3

ordezkaritza handiena duten
sindikatuetatik izendatuak

3

Euskal Enpresarien
Konfederakuntzatik izendatuak

1

Lehendakariak
izendatutako
presidentea,
Hezkuntzako
sailburuak
proposatuta

UNIBERTSITATE-KOMUNITATEA

6

Unibertsitateko Gobernu
Kontseiluaren ordezkariak:

- | Errektorea
- | Idazkari nagusia
- | Gerentea
- | Irakasle bat
- | Ikasle bat
- | Administrazioko eta
Zerbitzuetako langileen
ordezkari bat

BATZORDEAK**BATZORDE IRAUNKORRAK**

Koordinazio Batzordea

Gizarte Harremanetarako Batzordea

Ekonomia eta Finantzetarako Batzordea

Akademia eta Euskara Batzordea

Plan Operatiboaren eta
Plan Estrategikoaren Batzordea**ALDI BATERAKO BATZORDEAK**

Berezko Tituluen Batzordea

EHUren, Gizarte Kontseiluaren eta Lanbideren
arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea

Gizarte Kontseiluko kideak, 2014ko urtarriletik 2017ko abendura

Presidenteak:

- | Joseba Agustín Eizaguirre Agote
- | Asier Aloria Sánchez

Unibertsitate-komunitateko berezko kideak

Errektoreak:

- | Nekane Balluerka Lasa
- | Iñaki Goirizelaia Ordorika

Idazkari nagusiak:

- | Pedro Iriondo Bengoa
- | Mikel Garmendia Mujika
- | José Luis Martín González

Gerentea:

- | Lorea Bilbao Artetxe

Euskal Herriko Unibertsitatearen Gober- nu Kontseiluak izendatutako kideak

Irakasleak:

- | Enrique Amezua San Martín
- | Esther Domínguez Pérez

Ikasleak:

- | Jon Ander Aguirrechu Zea
- | Iker Martín Pesado

AZP:

- | Emilio Zubia Flaño

Eusko Legebiltzarreko ordezkariak

- | Josu Aboitiz Bilbao
- | Adolfo Apiñaniz Díaz de Garayo
- | Paulino Corcuera Muguerza
- | Ana Deusto Porset
- | Iñaki Ezkerra Greño
- | José Ramón Garai Iturriondobeitia
- | Joseba Gurutz Gómez de Segura Otegui
- | Jon Moñux Agote
- | Ainhoa Mouriz Ibarra
- | José María Ormazabal Ormazabal
- | Maite Pérez Hidalgo
- | Ismael Redondo Rojo
- | Joseba Félix Tobar Arbulu

Batzar Nagusietako ordezkariak

Araba

- | Armando Llanos Ortiz de Landaluce

Bizkaia

- | Mikel Iriondo Bilbao
- | Jon Iñaki Zarraga Aburto

Gipuzkoa

- | Miren Aurkene Astibia Legorburu

Sindikatuetaordezkariak

- | Juan Manuel Angulo Renes
- | Iñaki González Murua
- | Xabier Irastorza Garmendia
- | Inaxio Larrañaga Artola
- | José Luis Ruiz García
- | José Ángel Ulazia Beristain

Euskal Enpresarien Konfederakuntzako ordezkariak

- | Yoana Aranbalza Zalbidea
- | Néstor Eriz Laskurain
- | Carlos Pereda Martínez de Musitu
- | Juan Antonio Sánchez Corchero

Idazkari Nagusia

- | M. Pilar Elorrieta Santos

Legelari Aholkularia

- | I. Javier Rementería Ruiz

2017-2020 aldirako Plan Estrategikoa

Plan estrategikoak bi horizonte desberdinu definitzen ditu. Lehendabizikoa epe laburrekoa da (2017 eta 2018), eta maniobra-marjina apala du, aurrekontuetan izandako murrizketen ondorioz; haren helburua zera da, lankidetzaz-espazio jakinak topatzea Gizarte Kontseiluaren eta EHUren artean. Hori hala izanik, ahaleginak bateratzen ari gara baterako proiektua definitzen eta gauzatzen, eta haien diseinua, zabaltzea eta emaitzak partekatuko ditugu. Bigarren horizonteari datorren urtetik aurrera helduko diogu: beste agertoki bat irekiko zaigu 2019-2022 aldirako Unibertsitate Plana prestatu eta onartu ondoren.

Plan Estrategiko berriak, aurreko planen analisi kritikoa eginda, abiapuntu-diagnostiko bat formulatzen du. Hala, Gizarte Kontseiluaren helburua zera da, euskal gizartearen ahotsa EHUra eramatea.

Ondorioz, murrizpen ekonomikoak eta eskura ditugun baliabideen urritasunak faktore erabakigarri izango dira, bete-betean sartuta gauden Plan Estrategikoaren irismena finkatzeko garaian. Hori dela eta, gure arreta EHUren helburuen aurrerabidean lehenetsunezkoak diren esparruetan ardatzu beharko dugu, baita Gizarte Kontseilu honen balio-ekarpena handiena den esparruetan ere.



Nabarmendutako alderdi horiek kontuan izanda, honako ardatz estrategiko hauek planteatzen dira:

- | Kontseiluaren egitekoa indartzea, gizarte-beharrizan berriak kontuan izanda;
- | unibertsitatea eta enpresak gerturatzea, eta ikasle graduatuen enplegarritasuna sustatzea;
- | sariak eta errekonozimenduak ematea Kontseiluaren jarduera-esparruetan;
- | aliantza-politika bat garatzea beste gizarte-entitate eta -erakunde batzuekin;
- | gardentasunean eta kontu-ematean oinarritutako unibertsitate-gobernantza baterantz aurrera egiten laguntzea.



2 0 1 4 - 2 0 1 7

j o



o s o k o b i l k u r a n
r r a t u t a k o g a i a k



179. osoko bilkura 2014 . 01 . 22

- | 2014ko Euskal Herriko Unibertsitateko aurrekontua. Irizpena.

180. osoko bilkura 2014 . 01 . 22

- | Aurrekontu-aldaketak.
- | Irakasleen eta ikertzaileen ordainsari-osagarrien esleipena. Sententzien egikaritzea.
- | Ikasketa Osagarriak.
- | Barakaldoko Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola zaharra unibertsitateko zerbitzu publikotik kendu eta eraikina Barakaldoko Udalari itzultzeko eskaria.
- | Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak beste erakundetan parte hartzea: Novia Salcedo Fundazioa.

181. osoko bilkura 2014 . 03 . 26

- | Ikasleek UPV/EHUn Jarraitzeko Arauak.
- | Ikasketa Osagarriak.
- | Aurrekontu-aldaketak.
- | Gizarte Kontseiluaren aurrekontu likidazio egoerak 2013ko abenduaren 31n. Auditoria txostena.
- | Unibertsitateak beste erakunde batzuetan duen parte hartzea: BioCruces Osasun Ikerketa-rako Institutua.

182. osoko bilkura 2014.07.23

- | Hezkuntza, Kultur eta Kirol Ministerioak deitutako 2014-2015 ikasturterako Elkarlanerako Diru-laguntzak. Haien banaketa departamentuetan.
- | Graduondoko ikasketak 2014-2015: Master Ofizialak. Doktorego programak. Berezko Tituluak. Ikasketa Osagarriak.
- | Unibertsitateko 2013ko Txosten Ekonomikoa.
- | Aurrekontu-alaketak.
- | Gizarte Kontseiluaren finantza - informazioaren egoerak, 2014ko martxoaren 31ean eta ekainaren 30an.
- | Adikzioen Lege-Proiektua.
- | 2010 gradu promozioa. Laneratzeari buruzko inkesta. Emaizen aurrerapena.
- | Unibertsitate-zerbitzuen adierazleen sistema. Berrikustapena eta eguneratzea. Txostena.

183. osoko bilkura 2014.12.17

- | Aurregraduko Berezko Titulua Giza-Zientziak.
- | Ikasketa Osagarriak.
- | Aurrekontu-alaketak.
- | Deialdia merituen ebaluazioa eta irakaskuntza eta ikerkuntzako pertsonalaren ordainsari osagarrien esleipena eskatzeko.
- | Gizarte Kontseiluaren finantza - informazioaren egoerak, 2014eko irailaren 30an.
- | Europa eta Mundu Atlantikoa: Boterea, Kultura eta Gizarte Unibertsitate Masterra.



2 0 1 5

184. osoko bilkura 2015 . 04 . 22

- | 2015eko Euskal Herriko Unibertsitateko aurrekontua. Irizpena.

185. osoko bilkura 2015 . 04 . 22

- | Ikasketa Osagarriak.
- | UPV/EHUko Ikasketak Berrantolakuntza.
- | Master Ofizialak 2015-16.
- | Aurrekontu-alaketak.
- | Gizarte Kontseiluaren aurrekontu-likidazio egoerak 2014ko abenduaren 31an. Auditoria-txostena.
- | Irakasleen eta ikertzaileen ordainsari-osagarrien esleipena. Sententzien egikaritzea.
- | Unibertsitateak beste erakunde batzuetan duen parte hartzea: Informazio eta Komunikazio Titulazioal dituzten Unibertsitateen Espainiako Elkarte (ATIC).
- | Deialdia merituen ebaluazioa eta irakaskuntza eta ikerkuntzako pertsonalaren ordainsari osagarrien esleipena eskatzeko.

186. osoko bilkura 2015 . 06 . 03

- | Aurrekontu-alaketak.
- | Ikasketa Osagarriak.
- | Deialdia merituen ebaluazioa eta irakaskuntza eta ikerkuntzako pertsonalaren ordainsari osagarrien esleipena eskatzeko. Sententzien egikaritzea behinbehineko.

- | 2008 eta 2009 gradu-ondoko promozioak. Lan barneratzeen emaitzak, jasotako trebakuntza-ren maila eta adierazle nagusien eboluzioa.

187. osoko bilkura 2015 . 07 . 22

- | Hezkuntza, Kultur eta Kirol Ministerioak deitutako 2015-2016 ikasturterako Elkarlanerako Diru-laguntzak. Haien banaketa departamentuetan.
- | Unibertsitateko Masterretako Ikasleen Jarraitzeko Arauak.
- | Berezko Tituluak 2015-2016.
- | Ikasketa Osagarriak.
- | Unibertsitateko 2014ko Txosten Ekonomikoa.
- | Aurrekontu aldaketak.
- | UPV/EHU Bazkide laguntzaile moduan parte hartzea "Euskadiko Aeronautika eta Espazioko Klusterra (HEGAN)" Elkartean.
- | Gizarte Kontseiluaren finantza - informazioaren egoerak, 2015eko martxoaren 31an eta ekai-naren 30ean.

188. osoko bilkura 2015 . 12 . 23

- | Aurregraduko Berezko Titulua Giza-Zientziak. Esperientziaren Gelak.
- | Ikasketa Osagarriak.
- | Aurrekontu aldaketak.
- | Donostiako "Villa Asunción" izeneko eraikina unibertsitateko zerbitzu publikotik kendu eta eraikina Gipuzkoako Foru Aldundiari itzultzeko eskaria.
- | Irakasleen eta ikertzaileen ordainsari-osagarrien esleipena eta finkapena.
- | Gizarte Kontseiluaren finantza-informazioaren egoerak, 2015eko irailaren 30an.



189. osoko bilkura 2016 . 03 . 17

- | 2016ko Euskal Herriko Unibertsitateko aurrekontua. Irizpena.

190. osoko bilkura 2016 . 03 . 17

- | Doktoregoko Ikasketetako Ikasleen Jarraitzeko Arauak.
- | Ikasketa Osagarriak.
- | Aurrekontuko aldaketak.
- | Gizarte Kontseiluaren aurrekontu-likidazio egoerak 2015eko abenduaren 31an. Auditoria-txostena.
- | UPV/EHU parte hartzea "Conferencia de Decanas y Decanos de Derecho" Elkartean.
- | Gizarte Kontseiluaren bi ordezkari izendatzea UPV/EHUko Gobernu Kontseiluan.
- | Gizarte Kontseiluaren ordezkari bi izendatzea Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluan.

191. osoko bilkura 2016 . 03 . 17

- | Gradu eta Master Ofizialak 2016-2017.
- | UPV/EHU parte hartzea "Conferencia de Centros y Departamentos de Traducción e Interpretación (CCDUTI)" Elkartean.
- | Ikasketa Osagarriak.
- | Aurrekontuko aldaketak.
- | Irakasleen eta ikertzaileen ordainsari-osagarrien esleipena.
- | 2011 graduko promozioa eta 2012koaren aurrerapena. Lan barneratzeen emaitzak, jasotako trebakuntzaren maila eta adierazle nagusien eboluzioa.

192. osoko bilkura 2016 . 07 . 22

- | MEC diru-laguntzak. 2016-2017ko 5 laguntzen banaketa sailen artean.
- | 2016-2017 berezko tituluak. Prezioak.
- | Giza Zientzietan gradu aurreko Berezko Titulua. Esperientziaren Gelak.
- | Ikasketa Osagarriak.
- | Aurrekontuetako aldaketak.
- | Unibertsitateko 2015ko Txosten Ekonomikoa.
- | Irakasleen eta ikertzaileen ordainsari-osagarrien esleipena.
- | Deialdia merituen ebaluazioa eta irakaskuntza eta ikerkuntzako pertsonalaren ordainsari osagarrien esleipena eskatzeko.
- | Unibertsitate-zerbitzuen adierazleen sistema. Txostena.
- | Gizarte Kontseiluaren ordezkari bat izendatzea UPV/EHUko Gobernu Kontseiluan.
- | 2016-2017 ikasturteko Osoko Bilkuren egutegia.

193. osoko bilkura 2016 . 12 . 23

- | Aurrekontuetako aldaketak.
- | 2016eko deialdiari dagokion gehigarrizko ordainsari osagarriak (C1 eta C2 tarteak) esleitzeko eta finkatzeko proposamena.



194. osoko bilkura 2017 . 03 . 29

- | 2017-2020ko Gizarte Kontseiluaren Plan Estrategikoa.
- | Gradu eta Master ofizialak 2017-2018.
- | Irakasleen osagarri gehigarriak ebaluatzeko eta finkatzeko 2015eko deialdian egindako esleipenari jarritako birjartze errekurtsoak.

- | Irakasleen osagarri gehigarriak ebaluatzeko eta finkatzeko 2015eko deialdian egindako esleipenean hautemandako akatsak zuzentzea.
- | Gerentea izendatzeko Errektorearen proposamena.
- | Ikasketa Osagarriak.
- | Gizarte Kontseiluaren aurrekontuaren likidazio egoerak 2016ko abenduaren 31an. Auditoria txostena.
- | Unibertsitatea EHU Orkestra Sinfonikoa elkartearen partaide izatea bazkide fundatzaile gisa.
- | University Institute for Regenerative Medicine and Oral Implantology (UPV/EHU - Eduardo Anitua Fundazioa) Institutuaren atxikipena.

195. osoko bilkura 2017.05.25

- | Aurrekontu-aldaketak.
- | 2016eko deialdiari dagokion gehigarrizko ordainsari osagarriak (A eta B tarteak) esleitzeko proposamena.
- | Irakasleen osagarri gehigarriak ebaluatzeko eta finkatzeko 2015eko deialdian egindako esleipenari jarritako birjartze errekurtsioak.
- | Akatsak zuzentzea, irakasleen gehigarrizko osagarriak ebaluatzeko eta finkatzeko 2015eko deialdian eginiko esleipenari jarritako berraztertze errekurtsioei buruzko akordioan atzemandakoak, eta Unibasqen txostena.
- | Ikasketa Osagarriak.

196. osoko bilkura 2017.07.20

- | 2017ko Euskal Herriko Unibertsitateko aurrekontua. Irizpena.

197. osoko bilkura 2017.07.20

- | MEC diru-laguntzak. 2017-2018ko 5 laguntzen banaketa sailen artean.
- | Aurrekontuetako aldaketak.

- | 2017-2018 ikasturteko Osoko Bilkuren egutegia.
- | Berezko Tituluak 2017-2018.
- | Irakasleen osagarri gehigarriak ebaluatzeko eta finkatzeko 2015eko deialdian egindako esleipenari jarritako birjartze errekurtsoak.
- | Ikasketa Osagarriak.
- | Giza Zientzietan gradu aurreko Berezko Titulua. Esperientziaren Gelak.

198. osoko bilkura 2017. 10. 25

- | Irakasle eta Ikertzaileen gehigarrizko ordainsari osagarrien 2017ko deialdia, osagarriak esleitzeko ebaluazioa eskatzeko.
- | Unibersitateko 2016ko Txosten Ekonomikoa.
- | Aurrekontuko aldaketak.
- | Gizarte Kontseiluaren ordezkari bat izendatzea Gobernu Kontseiluan.
- | Ikasketa Osagarriak.
- | UPV/EHUK beste erakunde batzuetan duen parte hartzearen txostena.

199. osoko bilkura 2017. 12. 20

- | UPV/EHUren 2014 eta 2015ko Fiskalizazio Txostena. HKEE-ko Presidentearen azaltzea.
- | Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolaren izenaren aldaketa.
- | Ikasketa Osagarriak.
- | Itsas baliabide biologikoak Erasmus Mundus unibertsitate masterra.
- | Aurrekontuko aldaketak.
- | 2016ko deialdiko irakasleen gehigarrizko ordainsari osagarrien esleipenei jarritako berraztertze errekurtsoak.
- | 2017eko deialdiari dagokion gehigarrizko ordainsari osagarriak (C1 eta C2 tarteak) esleitzeko proposamena.
- | UPV/EHUK beste erakunde batzuetan duen parte hartzearen txostena: Euskampus.



J a r



d u e r a n a g u s i a k

Plan Estrategikoaren esparruan egindako txostenak eta azterlanak

Plan Estrategikoaren esparruan, Gizarte Kontseiluak hainbat txosten eta azterlan egiten ditu, honako helburu hauekin: EHUren irudia indartzea, irakaskuntza-erakundea gizartera gerturatzea eta unibertsitate-kudeaketa hobetzen laguntzea.

Txosten horiek Kontseiluaren atarian daude argitaratuta, lau bloke handitan:

- | EHUren ikuspena;
- | unibertsitate-enplegua;
- | gizartearen ahotsa;
- | unibertsitate-kudeaketarako ekarpena.

Memoria honetan jasotako denbora-tartean, honako txosten hauek biltzen dira.

I EHUren ikuspena

Bloke honetan eta memoria honek barnean hartzen duen denbora-tartean prestatutako dokumentuak.

EHUk gizarteari kontu emateko adierazleen sistema

Gizarte Kontseiluaren bitartez gizarteari kontu ematea legezko betekizuna da EHUrentzat, baina baita eginkizun filosofiko eta etikoa ere. Lan hori sinplifikatzeko, Kontseiluak unibertsitate-zerbitzuen adierazle-sistema bat diseinatzea erabaki zuen. Horrekin, hogeitaz adierazle gakoren bitartez, posible da unibertsitatearen helburu sozialen betetze-maila neurtzea eta unibertsitate-zerbitzuen jarduera ebaluatzea, bide batez, antzeko ezaugarriak dituzten beste unibertsitate batzuetakoarekin konparatuz.

Azterketa honen helburua, zeinaren emaitzak web gune honetan aurkezten baititugu, gizarteari EHUren emaitzei, ekarritako balioari eta helburuen betetze-mailari buruzko informazio ebaluagarria eskaintzea da, dagoen informazio ugaria laburbilduz eta antolatuz. Ematen den informazioak gizartearen oinarritzko galdera edo kezkak argitzen ditu, kontu emateko oinarritzko adierazleak eskaintzen ditu eta EHUK bere Plan Estrategikoan berariaz adierazitako helburuetara doitzen da.

Emaitza EHUren egiazko irudia da, zortzi arlo gakotan kontu emateko orduan.

- | **Finantzazioa eta gastuak.** Bitartekoen eta gastuen inguruko ratio erantsien alorreko posizionamendua.
- | **Barneratze-maila.** Ikasleen kopurua eta estaldura-tasa.
- | **Prestakuntza.** Eskuratutako emaitzak eta prestakuntza-prozesuaren efizientzia.
- | **Ingurunearen beharretara egokitzea.** Prestakuntzaren erabilgarritasuna, lan-munduan txertatzea, enplegua eskuratzea.
- | **I+G+B ikerketa.** Ikerketaren intentsitatea eta kalitatea eta enpresarekin duen harremana.
- | **Nazioartekotzea.** Ikasleen mugikortasuna eta ikasleak erakartzea.
- | **Izen ona.** Gradu- eta master-tituluak, akreditazioa berrituta daukatenak.
- | **Hizkuntza-normalizazioa.** Euskaraz eskainitako kredituak.
- | **Gizarte-erantzukizuna.** Aukera-berdintasuna genero-ikuspegian.

Memoria honetan bildutako denbora-tartean, 2014ari dagozkion txostenak prestatu dira (2012-2013 ikasturtea), baita 2016koak (2013-2014 ikasturtea) eta 2017koak ere (2015-2016 ikasturtea), adierazitako helburuen betetze-maila eta izandako aurrerapena sintetizatzen dutenak.

I Unibertsitate-enplegua

Bloke honetan eta memoria honen indarraldiari dagokionez, bi azterlan egin dira Lanbiderekin batera, unibertsitate-titulatuen lan-munduratzearekin lotuta: batetik, lizentziaturen eta gradu-promozioen lan-barneratzearen inkesta, eta, bestetik, 2008-2009 graduondoko promozioen lan-barneratzearen inkesta.

Lan-barneratzearen inkesta

Unibertsitate-titulatuen lan-barneratzearen inkesta behatoki iraunkorra da, eta, haren bidez, kolektibo horren lan-okupazioko tasak ezagutzen dira, baita garatzen dituzten enpleguen kalitatea eta egokitasuna ere. Behatokia Gizarte Kontseiluak sortu zuen 1999an, eta Plan Estrategikoan bildutako ekintzen zati da.

Inkestak memoria honetan jasotako lau urteetan 2010eko, 2011ko, 2012ko eta 2013ko promozioen emaitzak argitaratu ditu, titulatu eta hiru urtera; orotara hamabost unibertsitate-promozio aztertu ditu dagoeneko. Azterketa hori egiteko, Euskal Herriko Unibertsitateak, Gizarte Kontseiluak eta Lanbide sozietate publikoak hitzarmen bat sinatzen dute urtero. Inkestaren emaitzek balio handiko erreminta bat eskaintzen dute gure autonomia-erkidegoko goi-mailako irakaskuntzari eragiten dioten erabakiak hartzeko.

Graduondokoei buruzko txostena 2008/2009

Txosten horretan, promozio horien inguruko ezaugarriak jasotzen dira eta prestakuntzaren eta enpleguaren arteko harremana aztertzen da, baita enpleguaren kalitate-adierazleak eta graduondokoaren trebakuntzarekin izandako satisfazio-maila ere.

Inkesta horien emaitza osoak eta aztertutako promozio bakoitzari buruzko txostenak kontsultatzeko, honako helbide honetara jo daiteke:

<https://gizartekontseilua.eus/acerca-de/unibertsitateko-emplegu/>

Topalekua



84. zk, otsaila 2014

- └ Gizarte-Kontseiluak UPV/EHU-ko 2014ko Aurrekontua onartu du, Aurrekontua 395,38 milioi eurokoa da, 2013koa baino 2,4 milioi handiagoa.
- └ Enpresen eta hezkuntza-sektorearen arteko lankidetzak laneratzea hobetu luke.
- └ Gizarte-Kontseiluek eta Ministerioak aztertuko dute tituludunen enplegarritasuna.
- └ Tituludunek %28 aukera gehiago dute lan bat aurkitzeko.
- └ Hamabost proposamen, hazkundea bultzatzeko eta enplegua sortzeko.



85. zk, apirila 2014

- | Gizarte-Kontseiluak onartu du UPV/EHU-k Biocruces Osasun-Ikerketarako Institutuan parte har dezan.
- | Ministerioak Unibertsitatei eta Gizarte Segurantzari buruzko datuak erkatuko ditu, enplegarritasun-mapa bat sortzeko.
- | Munduko zientzia-mapa 15 milioi txosten zientifikoren datuz egina.
- | UPV/EHU-k MOOC Ikastaroak eskainiko ditu.
- | Gero eta profesional aditu gehiago beharko dira.
- | Finantzaketan adituek ekitate handiagoa eskatzen dute familiek ordaintzen duten ikasketa-kostuen kopurua ezartzerakoan.



86. zk, abuztua 2014

- | Gizarte Kontseiluak UPV/EHU-ren 2013ko Aurrekontuaren likidazioa onartu du. Horrez gain, tituludunen laneratzeari buruzko inkestaren emaitzak eta Gizarteari kontuak emateko adierazle-sistema aztertu du.
- | UPV/EHU-k aurrerapenak egin ditu Gizarte-helburuak betetzen.
- | UPV/EH-n 2010ean lizentziatu ziren 10 pertsonatik 7k lana dute, eta enplegua sei hilabetetik beherako epean aurkitu zuten.



87. zk, ekaina 2015

- | UPV/EHU-ren Gizarte Kontseiluak LII-entzako ordainsari osagarrien V deialdirako probaren onespena.
- | Gizarte Kontseiluak UPV/EHU-ren 2015eko Aurrekontua onartu du; guztira 396,55 milioi eurokoa da.
- | Gizarte Kontseiluak ikasketa osagarrien ikastaroen matrikula-prezioak onartu du.
- | Agustin Eizagirre, Kontseiluko Presidente berria.
- | UPV/EHU-ko ikasleen %70 inguruk ikasketak bukatu ondorengo laugarren urtean jada izena emanda zuten gizarte segurantzari.
- | Miniterioak aurkeztu du Inibertsitateak nazioarteko bihurtzeko estrategia.



88. zk, uztaila 2015

- | Gizarte-Kontseiluak UPV/EHU-ko 2014ko ekitaldiko kontuak onetsi ditu.
- | CYD Fundazionaren txostena: Euskadin graduatu gehiago eta tituludun langabe gutxiago daude, baina sinatzen diren kontratuen %37 trebakuntza-maila txikikoak dira.
- | Euskadik lortu ditu «Europa 2020» estrategiaren helburuak hezkuntzaren arloan.
- | Orkestra-ren Txostena: Enplegua, berrikuntza eta ekintzailtza, Euskal enpresen lehiakortasuna bultzatzeko.

89. zk, apirila 2016



- | UPV/EHU-ren 2016ko Aurrekontua onartu du Gizarte-Kontseiluak 402,75 milioi eurokoa da.
- | UPV/EHUko Gizarte Kontseiluak ordainketa osagarrien esleipena eta finkapena ontzat eman ditu.
- | Zer espero dute ikasleek sozialki erantzule diren unibertsitateetatik?
- | UPV/EHUK EHUALUMNI bulegoa izango du.

90. zk, ekaina 2016



- | Kontseiluak bostgarren deialdiari dagozkion osagarriak esleitu ditu.
- | Euskadiko matrikulak autonomia-erkidegoen batez bestekoan daude, baiian Europako 28 herrialdetan baino garestiagoak dira.
- | Euskal enpresek 2016an eskainitako enpleguen %56 goi-mailako ikasketak eskatzen dituzte.
- | Berdintasunaren balioak duen eragina ikasketak hautatze-rakoan.



91. zk, iraila 2016

- | Gizarte Kontseiluaren osoko bilkurak irakasle eta ikertzaileentzako ordainsari osagarri gehigarrien VI. Deialdia onetsi du.
- | UPV/EHUk hobera egin du helburu sozialak betetzean, «Kontuak emateko adierazle-sistema» txostenaren arabera.
- | UPV/EHU CYD txostenak azpértutako nazioarteko sailkapen nagusietan ageri da.



92. zk, otsaila 2017

- | UPV/EHU-ko Gizarte Kontseiluak onartu du 270 irakasleri ordainsari osagarriak esleitzea eta finkatzea.
- | GTCI (Global Talent Competitiveness Index) indizeko bigarren postuan Bilbo hiria dago, talentua atxikitzeko gaitasunaren arloan.
- | IKT arloko sailkapenaren aurrealdean Euskal Autonomia erkidegoa, Madril eta Nafarroa daude.
- | Azken hamar urtean hiru aldiz handiagotu da Euskal Autonomia erkidegoko ekoizpen zientifikoa.



93. zk, apirila 2017

- | Osoko Bilkurak 2017-2020 lau urtekorako-Gizarte Kontseiluaren Plan Estregetikoa onartu du.
- | CYD Txostena: UPV/EHU finantzazioaren buruan.
- | 10 urtetan, Ikerbasquek euskadiko ekoizpen zientifikoa hirukoiztu du.
- | Krisialdian zehar inbertsioa erabat jaitsi bazen ere, Euskadi da I+G arloan gehien inbertitzen duen erkidegoa.
- | Euskal Herriko Unibertsitatea munduko 150 Unibertsitate gazte onenen artean.



94. zk, ekaina 2017

- | Gizarte-Kontseiluak UPV/EHU-ko 969 irakasleri (Irakasle era Ikerlari) ordainsari osagarriak esleitu dizkie.
- | CEOE-k «La Educación importa» liburu zuria aurkeztu du.
- | UPV/EHU 14. Tokian dago «El Mundo» egunkariaren Unibertsitate publikoen sailkapenean.
- | Eusko Jaurlaritzak «2022rako Unibertsitatea.enpresa Euskal estrategia» aurkeztu dio Unibertsitate-Kontseiluari.
- | Euskadi hirugarren postuan «Horizonte 2020» esparru-programa Europarrean lortutako itzulkinetan.
- | UPV/EHU laugarren postuan dago U-Ranking volumen izeneko sailkapenean.



95. zk, uztaila 2017

- | Gizarte Kontseiluak UPV/EHU-ko 2017rako Aurrekontua onetsi du; %0,69 igoko da eta 405,5 milioi eurora helduko da.
- | Unibertsitate-sistema Europarretako egiturazko erreformen azterketa.
- | UPV/EHU-ko jarduera zientifikoa IUNE 2017 txostenean.
- | Euskadi, Europako batez bestekotik gora, lehiakortasun-Rankingeko 119. postuan da.



96. zk, azaroa 2017

- | Gizarte Kontseiluak 2016. Ekitaldiari dagozkion UPV/EHUko kontuak onetsi ditu.
- | CYD Txostena: Langabezia-tasa lortutako ikasketa-mailaren arabera da.
- | Unibertsitate-tituludunen lan-tasa elga-ko batez bestekoa baino 4 puntu beherago dago.
- | Ingeniaritza, Zientzia eta Teknologiako Unibertsitate-Prestakuntzaren Klusterra sortu da.



www.gizartekontseilua.eus

UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren webgunea

Memoria honen xede den denbora-tartean, Kontseiluak etengabe eguneratuta eduki du webgunea, eta organoak sortutako informazioa eta jarduera jaso du. Aldi berean, intraneta hobetu eta haren erabilera sustatu da, kontseiluko kideekin komunikatzeko erreminta gisa. Horri esker, osoko bilkura bakoitza egin aurreko dokumentazio-prozesua arintzea lortu da, baita paper-euskarria ordeztzeko bidean aurrera egitea ere.

EHUren Gizarte Kontseiluak 1998tik aurrera egindako jarduerak, lanak eta argitalpenak **www.gizartekontseilua.eus** atarian daude jasota, eta urte horren aurretik egindako informazioa eta agiriak ere eskatu litezke.